

## **KONTROL MOZIOA**

### **Egiako 9 eta 42 autobus lineak dela eta**

Garbiñe Alkiza Lopez de Samaniego EH BILDU udal taldeko zinegotziak, Udalbatzaren Organo Araudiko 98. artikulua oinarri, mozio hau aurkezten du, Udalbatzan azter dadin. Mozioa 2024ko urtarrilaren 15ean Gune Publikoetako Batzordean aztertutako interpelazioaren ondorioa da.

## **JUSTIFIKAZIOA**

Urrian aldaketak egin ziren Dbuseko hainbat lineatan. Aldaketa lineek maiztasuna betetzen ez zutelako omen zen, eta horiek bete ahal izateko, autobus-lineen geltokiak edota maiztasunak aldatu ziren zenbait lineatan.

Autobus geltokia aldatu zuten linea horietako bi Egiakoak dira: 9 eta 42 linea. Linea horien geltokiak Bulebarretik Okendo 18ra eraman ziren. Aldaketa horiek ezinezona sortu dute Egiako bizilagunen artean. Egiako bizilagunen iritziz, aldaketak hainbat kalte sortu ditu haien eguneroko mugikortasunean.

Hainbat bizilagunek haien kezka eta desadostasunaren berri eman diete bai Dbus konpainiari berari, bai Udal Gobernuari, baita Egiako auzo elkarteari ere. Aldaketa egiatarren kalterako izan baita kasu askotan.

Egia Bizirik auzo elkarteak kezka agertu zion Udal Gobernuari Partaidetza Sailaren bitartez, baina Udal Gobernuak ez zion inongo erantzunik eman. Hortaz, sinadura bilketa bat abiatu zuen Egian eta guztira, 2.062 sinadura bildu zituen. Sinadura horiek guztiak Udalean erregistratu zituen abenduaren 5ean, eta guk dakigula oraingoz ez dute inongo erantzunik jaso. Egiako bizilagunen eskaera Egiako 9 eta 42 lineek urriko aldaketen aurretik egiten zuten ibilbidea berreskuratzea da.

**EH Bildu talde politikoa**

Grupo político EH Bildu

Ijentea, 1 - 20003 Donostia  
Tel. 943481027 eh\_bildu@donostia.eus-- [www.donostia.ehbildu.eus](http://www.donostia.ehbildu.eus) -

Honi guztiari buruz interpelatu genuen Mugikortasuneko zinegotzi arduraduna urtarrileko batzordeetan. Esperokoa kontatu zigun, alegia, lineen maiztasunak betetzen ez zirenez, Egiaren kasuan linean aldaketak egitera behartuta zeudela, ez zela bestelako aukerarik aurreikusten.

EH Bilduren ustez, bizilagunak kaltetuak ez izateko irtenbide bat bilatu beharko luke Udal Gobernuak. Alde batetik erabiltzaile asko dituen linea bat delako eta bestetik, bizilagunen eskaria delako, eta haien beharrak kontuan hartu beharko lituzke Udal Gobernuak.

Tamalez, urtarrileko batzordeetan ez genuen aldaketa egiteko inongo intentziorik ikusi Mugikortasun zinegotzi ordezkariaren partetik.

Kontua izan behar dugu Egiak 15.000 biztanle dituela, maldaz beteriko auzoa dela eta bizilagun horietatik 4.000 65 urtetik gorakoak direla. Azken urtean, 900.000 eta 1.000.000 bidaiaria artean egin ditu 9 lineak gutxi gorabehera (linea guztietan 8. erabiliena).

Horiek horrela, honako hau da behean sinatzen duen zinegotziak aurkeztutako **KONTROL MOZIOA**:

1. Donostiako Udalbatzak hertsiki eskatzen dio Udal Gobernuari oraingoz eta bestelako neurri eraginkorrik bilatu bitartean, Egiako auzokideek eskatu bezala, Dbusen 9 eta 42 lineek urriko aldaketen aurreko ibilbideak izan ditzaten.
2. Donostiako Udalbatzak hertsiki eskatzen dio Udal Gobernuari Egiako auzo elkartearekin elkartu dadin Dbuseko 9 eta 42 lineen aldaketei buruzko adostasunak lortzeko.

Donostian, 2024ko urtarrilaren 19an



Garbiñe Alkiza Lopez de Samaniego  
EH BILDU udal taldeko zinegotzia